


Gipuzkoako hainbat herriren periurban jarduera kulturalak garatzeko eraikinak: pizgarria ala problema?

Laburpena: Plangintza-eredu tradizionalarri jarraituta, oposizio bat aurkitzen dugu landa-eremu eta hiri-eremuen artean, erabilera kontuan hartzen badugu. Gipuzkoako herri batzuetan, nekez mantentzen daitezke bi kontzeptu horiek banandurik, periurban erabilera berriak garatu nahiak desegin baititu bi esparruon mugak. Ikus daitezke irizpide kontrajarriak daudela hiri-erabilera horiek landa-eremuan urbanistikoki onartzeko orduan, aztertu ondoren periurban interes kulturalari loturiko 3 proiektu arkitetnikoren garapen ezberdinak.

Hitz-gakoak: Periurbea, jarduerakulturala, landa-eremua.

Abstract: Following the traditional planning model, it is found that, considering their use, there is an opposition between rural and urban areas. In some villages in Guipuzcoa, it is difficult to maintain these two concepts in a separate way, since the interest in developing new uses in the periurban area has dissolved the boundaries between these two areas. After the study of the different development of 3 cultural interest architectural projects in periurban area, it can be realized that there are contradictory criteria for the urbanistic concession of these urban uses in rural areas.

Key words: Periurb, cultural activity, countryside.



Iñigo Leon Cascante^{1*},
Daniel Carballo¹,
Cristina Marieta^{2*}.

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola.
Arkitektura Teknikoko Gradua. EHUko irakaslea.
(1) Arkitektura Saila. (2) Ingeniaritza Kimiko eta Ingurugiro Saila. (*) Doktorea.

Bidaltze data: 2016-07-01
Onartze data: 2017-01-31



Suburbanizazioa eta periferia berriak

Azken urteetako ikerkuntzek argi sendotzen dute ideia hau: Hiriak lurraldean hartzen duen egitura espazialak ondorio garrantzitsuak sortzen ditu ingurumen, gizarte eta ekonomian. Horrela, balioztatzen da munduko hiririk handienak biztanleriaren suburbanizazio-prozesu baten eraginpean daudela. Horren ezaugarria da hiriguneak uztea, kokapen periferikoagoak hobetsiz.

1942rako, Josep Lluís Sert hirigileak ohartarazi zuen fenomeno suburbanoaren entitateaz; batez ere, Amerikako metropoli handia aipatuz eta adieraziz arazo horrek sortzen zion kezka. Azken belaunaldietan, suburbia hartu dituen terminoen artean aurkitzen ditugu «ex-urbs», «outer-cities», «edge cities», eta abar (Fishman, 1987; Garreau, 1991). Europan ere, hirurogeita hamarreko belaunalditik abiatuta, aurki ditzakegu «ciudad difusa» (hiri lausotua), «metápolis», «hypercities» bezalako terminoak.

Edonola, ikuspegi apokaliptikoek iragartzen bazuten ere hiriaren «desagertze» edo «herri-amaiera», ez dirudi hori bat datorrenik hiri-erdiko eremu gehienek erakusten duten bizitasunarekin, batez ere, Europako testuinguruan. Egokiagoa da hitz egitea hiri deszentralizatu mota berri baten sorreraz; prozesu sozial, ekonomiko, teknologiko eta kultural berriekin koherentea den hiria (Fishman, 1994).

Suburbanizazio horren eragileen artean, kontuan hartzekoa da, adibidez, hiri-mugikortasunaren gehikuntza orokorra. Eta ez da ahaztu behar zuzenki erlazionatuta dagoela ekonomiaren ongizatearekin; horregatik, hain zuzen, baxuagoa da suburbanizazioaren hazkunde-tasa, krisi-garaietan.

Hiri lausotuaren agerraldia

Mediterraneoko hirien kasuan, suburbanizazio-prozesuak ez zuen ekarri hiri-erdiko despopulazioa, baizik eta «hirigintza lausotua» izenez ezagutu zen prozesua (Leontidou, 1994). Prozesu hori landa-eremuetara industria-deszentralizazio bat gertatzean datza.

Periurbanizazio eta «hiri lausotu»aren ondorioz, suburbanizazio-eredu latino-mediterraneoak eta anglosaxoiak, urtetan, bide ezberdinei jarraitu diete; baina, orain, Europa guztian, jo dute eredu komun bakar batean bateratzearen aldera; hain zuzen, sare erako egitura duen «zentrorik gabeko hiri» eredura. Esan daitezke rururbanizazio-prozesu batean gaudela; hau da, hiri-dinamikak antzinako urruneko landa-eremuetara barreiatzeko prozesuan.

Hiri-landa dinamika suspertzen ari diren erabilera-espazioak. Periurbaren kontzeptu berria

Espazio periurbanoa da espazio urbanoak landa-eremuarekin erlazionatzeko gunearen eraketa. Emaitza da kontzeptu tradizionalekin aztertzeke zailak diren espazio konplexuen sorrera (Ávila 2001:109). Egungo ekonomia eta lurralde-berregituraketaren ondorioetako bat da hiri-inguruko eremuetan gune rururbano edo periurbanoen sorrera, horrela eratzen da praktika ekonomiko, sozial, lurraldeko eta kulturalen agertokia (Ávila 2004).

Duela gutxiko suburbanizazio-prozesuek dakarte fenomenoaren «berritasun» maila desberdin bat. Gaur egun, inoiz ez bezala, hiria landari lotuta dago. Herria eta landa ez dira aurkako poloak, denbora eta espazio berean batera existitzen dira.

Interes kulturalari loturiko adibideak, aukera berria ote?

Ez da gauza berria esatea ekintza kultural konkretu batzuek hirien garapenarekin lotura dutela. Suburbanizazio aitzindariaren adibide nagusietara jotzen badugu, adibidez, aski aztertu da Los Angeles hiriaren garapenak zinemarekin eta, bereziki, Hollywood-eko produkzioekin duen lotura (Cardesin 2014).

Urrutira joan gabe, Gipuzkoan, nabaria da kostaldeko hainbat herri zinemarekin izan duten hartu-emanan, eta horrek ekarri dien aldaketa. Turismoarekin loturiko hazkuntzak bultzada ekonomikoa ekartzeaz gain, gizarte eta ingurumenean aldakuntza dakar. Horien adibide aski ezaguna Donostia bada ere, badira mundu mailan ezagun diren



beste adibide txikiago batzuk. Azken urteotan, adibidez, oso estua da Zumaia zinemarekin duen lotura; estuegia, agian, bertako bizilagun askorentzat. *8 apellidos vascos* pelikularen arrakastatik pasata, *Zipi y Zape* edo orain mundu mailan aski ezagun egin den *Juego de tronos* teleailek astindu dituzte hiriguneak eta bertako biztanleak.

Argia da, beti, ekintza «kultural» horiek babesteko argudioa: mundu mailako promozioa, turismoa, dirua, hazkuntza, etab.; eta, ez soilik era lokalizatu batean; badirudi Gipuzkoak, Euskal Herriak, denok irabazia aterako diogulakoan egon behar dugula. Baina, aitzitik, ekintza masibo horiekin bai Donostia eta bai Zumaia jasaten ari dira, azken urteetan, turismoaren akzio bortitza. Horren ondorioak pairatzen dituzte, askotan, hiriguneetan bizi diren biztanleek, une puntualetan bada ere; askok bideratzen dituzte hirigunetik kanpo mugitzeko akzioak, hirigunean oxigenoa faltako balitz bezala mugitzen direla erreparatzean.

Baina, artikulu honetan, bereziki aurkeztu nahi da barnealdeko beste herri batzuetan gertatzen ari den fenomeno bat, hiri-landa dinamikarekin lotuta. Badakigu denok Euskal Herria oso menditsua dela eta argia da horrek hirien garapenean duen influentzia. Nekazaritzak eta abeltzaintzak baserrien mantenturako izan duten garrantzia nabaria izan bada ere, askok ez dute ikusi nahi landa-lurraren esplotazio lokalizatuak, jada, galdu duela errentagarritasuna. Horren ondorioz, ikus ditzakegu baserrien gaurko egoera tristearen adibide ugari: abandonu-egoera orokor batean, biztanlerik gabe, kasu gutxi batzuetan abere-ustiaketara zuzenduta soilik eta, mantentzea egin gabe, lurra sastrakaz josita ageri dira. Hala ere, askok ez dute ohiturak baimentzen zuena aldatu nahi, nahiz eta joera horrekin ondare pribatu asko galtzen ari diren.

Azken urteotan, hainbat saiakera egin dira, Usurbilgo eta Andoingo periurbean, hiri-landa dinamika suspertze aldera, kulturarekin lotura duten erabilerak hirigunetik landa lurrera mugitzeko. Eskala txikiko suburbanizazio-eredu horrek landa-lurraren mantenua bermatzeaz gain, ospea dakarkio hirigune osoari eta, ondorioz, bultzada



1. irudia - Usurbilgo «H» musika-estudioa landa-lurrean kokatuta.


2. irudia - Usurbilgo «H» musika-estudioa behetik ikusita.

Egilea - Jorge Allende.

3. irudia - Usurbilgo «Z» arte-estudioaren irudiak.

4. irudia - Usurbilgo «Z» arte-estudioaren kanpo itxura. Naturarekin harremanetan.

Iturria - Egilea.



ekonomikoa aurreuposatzen zaio; bereziki, turismo globalizatuaren eskutik. Hori ona ote? Pizgarri modura argi dago bere funtzioa; baina, erabakiak hartu aurretik, ezaguna da gizakiok orokorrean ikusten dugun problema zerrenda.

Esperientzia hori, gure kasuan, 3 proiektu konkretuetan zentratzen da: bi musikaren munduarekin, eta konkretuki grabaketa-estudioekin, eta bestea Arte Ederrekin, konkretuki, arte-estudio batekin. Intimitatea bermatze aldera, Andoaingo «G» eta Usurbilgo «H» musika-estudioez, eta Usurbilgo «Z» arte-estudioaz ari gara. Erabilera horien migrazioaren zergati ez du edonork ulertzen; baina, laburtuz, esan daiteke arrazoi bikoitza duela: batetik, ahalmen sortzailearen beharra duten aktibitateak naturan murgilduta garatzean kreatibitate-hazkuntza lortzen dela diote kontsultatutako artistek. Bestetik, EHk eta, kasu konkretu honetan, Gipuzkoak duen izaera menditsuak ziurtatzen du artistek ezinbestekoa duten isolamendu efizientea; paradoxikoki, hurbiltasun izugarria eskainiz. Hori bai, autoa ezinbestekoa da; baina, garraio bideen eboluzioa dela medio, maiztasun gutxirekin erabiltzen diren bidexka alboetan kokaturik badaude ere, hirigunera 5 minutu, Donostiara 10, Iruñera eta Bilbora ordutxoak ditugu soilik. Hegazkinaren eserlekutik isolamendu kreatibora, artista batek galtzen du LA-en estudiotik etxera mugitzeko beharko duen baino denbora gutxiago eta, gainera, han natura ukitu gabe.

Orain, erabilera horiek ez daude jasota gure hirigintzako legedian eta, orokorrean, jasota ez dagoenak ezezkoak lortzen du aukeraren aldeko galdeketa. Udal-teknikari ugarik, askotan, erabiltzen dute ezezkoak ematen dien babes eta ahanzten dute baieztekoak eta kontrako horrek, justifikazio arrazoitu baten ezean, ardua bera dutela maiz. Goian aipatutako 3 adibideak eraiki dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsita (horiek baimentze aldera jo duelako), baina bidea ez da xamurra izan. Askotan eta, bereziki, «Z» estudioaren kasuan, udalak zentzugabeko erabakiak hartu ditu ere, erabilera horretan etekin publikoa ziurtatze aldera, foru-aldundiaren onespeneren ondoren; hala nola lizentzia jaso ondoren, eraikin pribatu dena, eraikin publikotzat

konsideratuz, proiektuan aldaketa sakonak eskatzea adibidez. Baina foru-aldundiak «interes publikoa» arrazoi baliatuz, erabilera kultural horien onspena hainbatetan egin badu ere landa-eremua suspertze aldera hiri-erabilera migrazioak onartuz, azkenaldian, kontrako sententzia batzuen ondorioz, «G» estudioan egin nahi den erabilera handitzea ez da onartu; arrazoi argirik izan gabe, botere judizialak ez baitu interesik, soilik legearen interpretazio zuzenena egitea ezpada.

Gipuzkoako hainbat herritan, nekazaritza eta abeltzaintza alde batera utzi direnez, landa-eremuak nahiz hiriak berak beste sostengu bat behar dute eta, eskala txikiko suburbanizazio horien garapenen eskutik, hiriaren maila ekonomikoa altzatzea lortzen bada, hobe. Kultura terminoa XVIII. mendekoa bada ere, periurbe horietan garatu nahi diren erabilera «berri»en artean, kulturari lotuta datozen asko ditugu. Nahiz eta kultura kontzeptua eta definizioak oso aztertuak izan diren (Kroeber eta Kluckhohn 1952) eta, hasiera batean nekazaritza («agricultura») terminoari lotuta bazetorren ere, esanahia erauzi zaiola dirudi, gauza asko kontzeptuaren baitan ezar baitaitezke eta, landa-eremuan, edozer kokatzea problema bilaka daiteke. Zenbait udalek nahiz Aldundiak ez dute argi zein bideri jarraitu, kasu batzuetan erabilera-berrikuntzaren aldeko erabakia hartu badute ere, azkenaldian kontra azaldu dira pisuzko arrazoirik gabe. Argi dagoena zera da: epe motzera ebaluazio errealista bat egin behar dela, hirien periurbean erabilera hauek dakarten onura, kostu eta kalteena, egungo eztabaida maila hau gainditze aldera.

///

Bibliografia

- Ávila, H. (2001): «Ideas y planteamientos teóricos sobre los territorios periurbanos, Las relaciones campo-ciudad en algunos países de Europa y América», *Boletín del Instituto de Geografía*, 45, 108-127.
- Ávila, H. (2004): «La agricultura en las ciudades y su periferia un enfoque desde la Geografía», *Boletín del Instituto de Geografía*, 53, 98-121.
- Cardesín, J. (2014): «Reconstruyendo la ciudad Norteamericana a través del cine: el Downtown de Los Ángeles», *Historia Social*, 79, 61-81.
- Fishman, R. (1987): *Bourgeois utopias: The Rise and Fall of Suburbia*, Basic Books, Nueva York.
- Fishman, R. (1994): «Space, time and sprawl», *AD*, 64. bol.
- Garreau, J. (1991): *Edge cities*, Anchor Books, New York.
- Kroeber, A. eta Kluckhohn, C. (1952): *Cultura: Una reseña crítica de conceptos y definiciones*, Vintage Books, New York.